

Beiraren distortsioa


Irati Majuelo

Sylvia Plath idazlearen lanak sona du gaur egun, nahiz eta beti ez zuten hala izan. Bere heriotzaz geroztik eman zitzaion batik bat garrantzia idatzi zuenari, izan zituen gaixotasunen eta amaierako suizidioaren morboari tiraka, gehienetan. Hala ere, kritika feministaren bidetik, idazkiak berreskuratzeaz gain, arreta haren heriotzaren jarri beharrean, haren bizitzan eta idazkeran ipintzeko ahalegina egin da, kultzuko idazle bilakatzeraino. Izan ere, bizitza eta idazketa bereizi ezinezkoak dira Plathengan.

Idazle estatubatuararen poesia da, akaso, bere obran ezagunena, eta gurean ere, poesia-azkoak dira aurretik itzuli diren bi liburua, Inigo Astizen zein Har-kaitz Canoren eskutik. Garazi Arrulak, ordea, bere eleberririk barrena euskaratu berri du, ezizenpean argitaratu zuena 1963an. Euskara bikainean eta Plathen estilo gordinari eutsiz, altxor txiki

bat da euskarara ekarritako munduko literaturaren artean.

Eleberririk honek neska gazte baten gainbehera azaltzen du, New Yorkera beka batekin joateko aukera norbere barrurantz amiltzeko zulo bilakatzen zaionean. Esther Greenwood ikasle argia da, nota bikainez betetako curriculumarekin etorkizun oparoa iragarri zaiona: nahi duena lor dezake, nahi duena izan daiteke. New Yorken bera moduko neska talde batekin igaroko du hilabetea,



'Beirazko kanpaia'

Idazlea: Sylvia Plath. **Itzultzailea:** Garazi Arrula. **Argitaletxea:** Txalaparta.

moda aldizkari batean editore gonbidatu modura, hiri handiko giro artifizialaren xanpain buruilak dastatzen eta helduaroko trantsizioaren lehen errealitate kolpeak jasaten: gizonetik harreman zapuztuak, sexu-erasoak, nesken arteko lehia eta jelsiak, lan-munduko anbizioa eta zorroztasuna. Etorkizunerako lehen urratsak emateko egonaldia omen da, baina Estherrek, aitzitik, ez daki zer nahi duen. Ez du hori nahi, baina ezin jakin norantz jo: paralizatuta dago egonaldia amaitzen denerako. Gainerakoengandik bereizi sentitzen da, ez baitu euren feminitatearekin bat egiten, eta ez baitu ere arau sozialek emakume gazte baten zuzenak aurreuposatzen duten leku baldintzatuan bere burua ikusten. Poliki-poliki, lehen pertsonan ikusten eta kontatzen du nola mozten zaizkien hegalek bere ilusio lañoa, nola mugatzen duen gizarteak, nola mugatzen duen berak bere burua.

Era horretan, Estherren eta munduaren artean amildegi bat zabaltzen da, geroz eta handiagoa. Nobelaren bigarren zatian, istorioak purpurina atzean utzita, kolore ilun trinkoa hartzen du. Neska gaztearengan aurretik su-

matutako noraez eta haustura zantzuak nabarmen indartzen dira, eta aurretik errealitatearekiko sorgortasuna zena gaixotasun kliniko bilakatzen. Horren ondorioz datoz psikiatrikoak, medikalizazio bortitza, elektroshock tratamenduak. Ameriketako Estatu Batuen 50eko hamarkadako erretratu garrantzia egiten du, beraz, gainbehera psikologiko pertsonala zirudiena herrialde erik baten harilkatzean; hala, eremu publikoa eta pribatua etengabe gurutzatzen eta gainjartzen dira Plathen idazkeran.


Idazkera berezia du estatubatuarra, istorio arrunt eta kaskarina dirudienaren gainean ahot sakon eta ospel bat gailentzen baitoa ia irakurlea ohartu gabe, ia dena irensteraino. Irudi indartsu eta darduzagarriak, testuak lirkotasuna emateaz gain, kontaktuz bisuala sortzen dute oso, sinetsaraziz ospitaleko harlauzen gainean lehertu den termometroaren merkurioak goitik beheara ziprztindu zaituela. Horrez gain, Plathen ironia eta umore beltza nabarmendu behar dira, gaixotasun, erietxe eta zulo beltzez osaturiko kristalezko munduan ere isekari agertzen baita idazlearen ahotsa.



'Bat gehiago gara'

Egilea: Leire Salaberria. **Argitaratzailea:** Txalaparta. **Generoa:** Komikia.

Jaiotzeaz da Yun panda gorriaren ahizpa, eta ez daki horrek nola aldatuko dion bizitza. Umore tanta batekin eta goxotasunez kontatu du Leire Salaberria egileak zer gertatzen den etxera beste kide bat hiltzen denean. Haur txikiak sortutako lan bat da, eta baita egilearen gisa horretako lehena ere.



'Zuihitsua'

Egilea: Josu Jimenez Maiak. **Argitaletxea:** Dakit argitaldaria. **Generoa:** Saiakera.

Elkarri arinki lotutako paragrafoz eta askotariko ideiaz sortutako saiakera bat da Josu Jimenez Maiak argitaratutako *Zuihitsua*. Euskaraz egindako kamishibai, haiku eta haibun izekomeko teknika japoniarrez gozatzeko aukera ere eskainiko dio irakurleari, besteak beste.



'Baskoniako notiziak. Iparretik ikusiak'

Egilea: Jean Louis Davant. **Argitaletxea:** Maiatz. **Generoa:** Saiakera.

Allande Oihenartek 1637an argitaratutako *Notitia Utriusque Vasconiae* lanari oihartzun eginez osatu du Jean Louis Davantek *Baskoniako notiziak* saiakera, gogoratuz bere historia ezagutzen ez duen populua desagertzeko arriskuan dela.

Huts egin gabe

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Dagoeneko hirugarren abentura sorta kalean dugu Bigaren jarraitzaileok. *Bene-tan Identifikatu Gabeko Anima-lia*-ren 22 pasarte ditu liburua, eta, beti bezala, denborapasa sorta bat azken bi orrialdeetan.

Formatua eta ezaugarriak errepikatzen dira: barrea eta ezustea bilatzen dituzten irakurgaiak dira, bi orrialde luzatzen direnak –orri bakarrek salbu–, gertakari xumeak guztiak, eskolan edota etxean gertatzen direnak, aurreko liburuetako pertsonaiekin. Umore eta ezusteko gag hauek garatze-ko, Bigaren ahalmen bereziak izaten dira motor nagusia, orain tamainaz aldatzen, orain formaz edo kolorez, baina ahalmen guz-

tien gainetik bere irudimena eta jarrera dira gilitza.

Arketipoen banaketak hor jarraitzen du: Leoi kameleoa Bigaren ifrentzu gisa portatzen, Biff idia eta Kyle krokodiloa ahulen jazarle, Kara dortoka Bigarekin maiteminduta, Banbu panda-hartza lagun min gisa.

Familia giroko abenturak ugaritu egin dira aurreko zenbakiekin alderatuta, eta, gainera, familiako bi kide berri agertzen dira: birramona eta osaba altxor-bilataleia.



'Biga 3'

Idazlea: Romain Pujol. **Ilustratzailea:** Vincent Caut. **Itzultzailea:** Aintzane Atela. **Argitaletxea:** Astiberri.

Ez horregatik!

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Liburua album ilustratu deitzen den generokoa da, tamaina ertainekoa (23x23 cm) eta 28 orrialdekoa. Albuma izanik ere, irudiak marko zuriz inguratuta daude orrialdeetan, eta beheko markoan, zabalagoa izanik, testua ematen da, letra mekanografikoetan.

Oinarriko koloreekin margotutako irudiak dira, tonu minetan emanak, berde eta urdinak oinarri bisualak ezartzeko eta gorriak zein horiak nabarmentze lanetarako. Irudien formak ere oinarrikoak (ikonikoak) dira, eta ingerada lausoekin emanak.

Guztiak bat, ilustrazio difuminatuak sortzen dira, lausotasun (edota lainotasun) estetiko baten jabe direnak, narratzailearen ahotza fokuan jartzeko asmoarekin eginak baleude bezala.

Testuak egitura errepikatuarekin egiten du lana, protagonista narratzaile duela. Irudi bakoitzeko haurra norbaitekin agertzen da, eta delako horrek zer irakatsi dion adierazten digu testuak: aitzak pazientzia, amak itxarotzea beti ez dela ona... Hamaika irakaspenean, haurrak ontzat hartuak guztiak. Amaieran, eskerrak ematen dizkigu «denoi», «bihoitzaren barru-barrutik», eta ni zain gelditu naiz, ea mutikoari malezia nork irakatsiko.



'Eske mila!'

Idazlea: Isabel Minhos Martins. **Ilustratzailea:** Benardo P. Carvalho. **Itzultzailea:** Jone Irazu Garikano. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.